



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior

**MERKATARITZA- ETA LANKIDETZA-AKORDIOA EB –ERRESUMA BATUA**

2021eko urtarrilaren 1ean, Erresuma Batuak EBko merkatu bakarra eta aduana-batasuna abandonatuko ditu, baita EBko politika guztiak ere. Horren ondorioz, EBko estatu kide gisa zituen eskubide eta onura guztiak galduko ditu, baita EBko nazioarteko akordioen estaldura ere. Erabaki horrek irismen handiko aldaketak ekarriko ditu, EBko zein Erresuma Batuko herritarrei, enpresei, administrazio publikoei eta alde interesdunei eragingo dietenak. EBk eta Erresuma Batuak 2020an zehar negoziatu dituzte “Merkataritza- eta Lankidetzak-akordio” berriaren terminoak, horien etorkizuneko harremanak arautuko dituenak, kontuan hartuta Erresuma Batua hirugarren herrialde bat izango dela.

2020ko abenduaren 24an, negoziatzaileak akordio batera heldu ziren. Bi aldeek sinatu eta berretsi beharko dute akordio hori, hain zuzen ere, bakoitzari dagozkion arauen eta prozeduren arabera; orduan, akordioa behin-behinean aplikatu ahalko da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

**Zer aldatuko da 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera?**

EB-Erresuma Batua Merkataritza- eta Lankidetzak-akordio berria indarrean egonda ere bai, aldaketa handiak gertatuko dira 2021eko urtarrilaren 1ean. Data horretan, Erresuma Batuak EBko merkatu bakarra eta aduana-batasuna abandonatuko ditu, baita EBko politika guztiak eta nazioarteko akordioak ere. Europar Batasunarekiko pertsonen, ondasunen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea amaituko da.

EB eta Erresuma Batua bi merkatu bereizi izango dira; bi arauketa- eta lege-espazio desberdin. Horrela, hamarkadetan zehar existitu ez diren oztupoak birsortuko dira ondasunen eta zerbitzuen merkataritzarako eta mugaz gaindiko mugikortasunerako eta trukeetarako, bi norabideetan; beraz, horrek eragina izango du bi aldeetako administrazio publiko, enpresa, herritar eta alde interesdunengan.

Batzordeak, 2020ko uztailaren 9ko “Brexitaren aurrean prestatzeko jakinarazpen” batean, orientabide zabalak igorri zituen eta, horiekin batera, 90 ohar sektorial jaso zituen, sektore guztiei laguntzeko saihestezinak diren aldaketen aurrean prestatzeko.

**2021eko urtarrilaren 1etik aurrera saihestezinak izango diren aldaketen adibideak**

- Pertsonen zirkulazio askea amaituko da: data horretatik aurrera, Erresuma Batuko herritarrek ez dute askatasunik izango EBn lan egiteko, ikasteko, negozio bat abian jartzeko edo bizitzeko. Bisak beharko dituzte EBko iraupen luzeko egonaldietarako. Kontrolak aplikatuko dira mugan; pasaporteak zigilatu beharko

dira eta EBko maskotentzako pasaporteak ez dira baliodunak izango Erresuma Batuko herritarrentzat.

- Salgaien zirkulazio askea amaituko da: aduana-kontrolak aplikatuko zaizkie EBN sartzen diren Erresuma Batuko esportazio guztiei. Erresuma Batuko nekazaritzako elikagaien esportazioek osasun-ziurtagiriak lortu beharko dituzte eta osasun-kontrolak eta kontrol fitosanitarioak egin beharko dituzte estatu kideetako mugako ikuskapen-postuetan. Horretarako, Erresuma Batuko enpresek denbora eta dirua inbertitu beharko dituzte.
- Zerbitzuen zirkulazio askea amaituko da: Erresuma Batuko zerbitzuen hornitzaileek ezingo dute jatorrizko herrialdearen printzipioa baliatu. Estatu kide bakoitzaren arauak bete beharko dituzte edo EBN birkokatu beharko dira, gaur egun operatzen duten bezala jarraitu nahi izatekotan. Ez dizkiote elkarri lanbide-trebakuntzak aitortuko. Erresuma Batuko finantza-zerbitzuetako enpresek finantza-zerbitzuen pasaportea edukitzeko (passporting) eskubidea galduko dute.

## **EB-ERRESUMA BATUA MERKATARITZA- ETA LANKIDETZA-AKORDIO BERRIA**

2020ko abenduaren 24an, EBko eta Erresuma Batuko negoziatzaileak “printzipio-akordio” batera heldu ziren bien arteko harremanak arautuko dituen “Merkataritza- eta Lankidetza-akordio” berri baten testuari dagokionez, kontuan hartuta Erresuma Batua EBtik atera dela. Bi aldeek aurrera egin beharko dute akordio honen sinadura eta berrespenarekin, hain zuzen ere, bakoitzari dagozkion arau eta prozeduren arabera eta akordioa behin-behinean aplikatzeko 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

EB-Erresuma Batua Merkataritza eta Lankidetza berria ezin da parekatu Erresuma Batua EBko kide zeneko lankidetza-mailarekin. Hala eta guztiz ere, akordio hau merkataritza askeko tratatu tradizional batetik askoz harago doa, etorkizuneko harremanetarako oinarri irmo bat ezarriz.

### **Zertan datza akordio berri hau?**

Lau oinarri ditu:

1. aurrekaririk gabeko merkataritza askeko akordio bat,
2. lankidetza handizalea ekonomia, gizartea, ingurumena eta arrantzaren eremuetan,
3. lankidetza estua herritarren segurtasunerako,
4. gobernantza-esparru orokorra.

Akordioak islatzen du Erresuma Batua erkidegoaren altxorraren eta EBko arau komunen ekosistematik joaten dela, baita aplikazio-mekanismoen eta mekanismo betearazleen eta ikuskapeneko ekosistematik ere. Hortaz, Barne Merkatuko kide izatearen onurez gozatzeari utziko dio.

Akordio honek eskubideak eta betebeharrak esleitzen dizkie bi aldeei, erabat errespetatuz bere arautzeko eta erabakiak hartzeko autonomia. Erresuma Batuak eskatuta, akordioak ez du kanpo-politika, kanpo-segurtasun eta defentsaren eremuko lankidetzaren barne hartzen, nahiz eta, hasiera batean, adierazpen politikoan aurreikusita egon. Gainera, akordioak ez du inolako erabakirik jasotzen finantza-zerbitzuen baliokidetasunei dagokienez. Horrez gain, ez du balizko erabakirik jasotzen Erresuma Batuko datuen babesaren araubidearen egokitasunari dagokionez, ezta horren osasun-araubidearen eta araubide fitosanitarioaren ebaluazioari dagokionez ere, EBra elikagaiak esportatzeko baimendutako hirugarren herrialde gisa gehitzeko helburuarekin. Hauek dira eta izango dira EBren alde bakarreko erabakiak eta ezingo dira negoziatu.

## EB-Erresuma Batua Merkataritza- eta Lankidetzak-akordio berria

Ekonomia, gizarte, ingurumen eta arrantzaren eremuetako merkataritza	<b>EBren balizko alde bakarreko neurriak</b>
Merkataritza askea, bidezkoa eta jasagarria	Negoziatu ezin direnak:
✓ Salgaien merkataritza, aduana-lankidetzaren eta araudia barne	✓ Datuen babesarekin lotutako egokitzapen-erabakia
✓ Zerbitzuak eta inbertsioa	✓ Erresuma Batuko hirugarren herrialdeen osasun-neurrien eta neurri fitosanitarioen zerrenda
✓ Merkataritza digitala, jabetza intelektual eta kontratazio publikoa	✓ Baliokidetasunak finantza-zerbitzuetan
✓ Lehiakortasun leialerako eta jasagarritasunerako arauak	
<b>Partekatutako aukerak, konektibitatea jasagarritasuna</b>	
✓ Garraioa	
✓ Energia	
✓ Arrantza eta baliabide naturalak	
✓ Gizarte-segurantzaren koordinazioa	
✓ Batasuneko programak	
✓ Lankidetzaren tematikoa	
<b>Herritarren Segurtasuna</b>	
✓ Zigor-arloko lankidetzaren poliziala eta judiziala	
✓ Funtsezko eskubideen eta datu pertsonalen babesa	
✓ Datu-trukea	
✓ Kapitalak zurtzearen aurkako borroka	
<b>EB-Erresuma Batua gobernantza-esparru berria lankidetzaren iraunkor baterako</b>	
✓ Partekatutako balioak eta funtsezko elementuak	
✓ Lankidetzaren kontseilua	
✓ Ertabaiden ebazpena, aplikazio betearazleko mekanismoak eta zehapenak	
✓ Aldizkako berrikuspenak	

## 1. oinarria– Merkataritza askea, bidezkoa eta jasangarria

Erresuma Batuak merkatu bakarra eta aduana-batasuna abandonatzea erabaki du. Horrenbestez, EBrekiko merkataritza ezingo da EBko eskubide osoko kide gisa gozaten zuen berbera izan. Hala eta guztiz ere, EB-Erresuma Batua Akordioak aurrekaririk gabeko merkataritza askeko gune handizale bat sortzen du, zehazki, Munduko Merkataritza Antolakundearen terminoen peko merkataritza-akordioekin alderatuta.

- Akordioa merkataritza-politika moderno eta jasangarriaren abangoardiara dago. Bi aldeak konprometitzen ditu honakoa bermatzen duten **estandar komun altuak mantentzera**: lan- eta gizarte-estandarren babesa; ingurumenaren babesa; klima-aldaketaren aurkako borroka, karbonoaren prezioen ezarpena barne, eta zerga-gardentasuna. Era berean, printzipio xeheak jasotzen ditu **estatu-laguntzen inguruan, aldeetako edozeinek bateragarriak ez diren eta lehia aldatzen duten diru-laguntza desleialak ematea saihesteko**.
- Estandar eta printzipio horiek lotuta daude nazio mailako aplikazio-mekanismoekin eta **gatazkak ebazteko mekanismoekin, EBko eta Erresuma Batuko enpresak baldintza-berdintasunean lehiatzea bermatze aldera**. Aldeek alde bakarreko neurriak ezartzeko eskubidea dute, bere ekonomiak beste aldearen lehia desleialaren aurka babesteko.
- EB-Erresuma Batua Akordioa EBk Kanada edo Japonia bezalako hirugarren herrialdeekin adostutako merkataritza askeko akordiorik berrienetatik harago doa, **muga-zerga eta kuotarik ezartzen ez duelako ondasunetarako**. Hori bereziki garrantzitsua da nekazaritza- eta arrantza-produktuak bezalako ondasun nabarmenentzat. Adibidez, akordiorik gabe, haragi edo esne-produktu batzuen esportazioek % 40 baino gehiagoko muga-zergak ordaindu beharko lituzkete, Munduko Merkataritza Antolakundearen tasen arabera eta, bestalde, edonola lataratutako arrainaren kasuan, muga-zerga % 25ekoa izango litzateke. Horrez gain, ibilgailu, kamioneta eta kamioien esportazioek % 10eko muga-zerga ordaindu beharko lukete bi norabideetan.
- Ez-ohiko merkataritza-lehentasan horiek baliatzeko, enpresek erakutsi behar dute bere produktuek **“jatorrizko arauen”** beharrezko betekizun guztiak betetzen dituztela. Horrela, bermatzen da akordioaren arabera emandako merkataritza-lehentasanak onuragarriak direla EBko eta Erresuma Batuko operadoreentzat eta ez hirugarren herrialdeentzat; beraz, zerga-saihestea ekiditen da (iruzur egitea). Betetzea errazteko eta burokrazia murrizteko, akordioak aukera ematen die operadoreei salgaien jatorria haiek ziurtatzeko eta, gainera, “guztirako pilaketa” bat aurreikusten du (horrek esan nahi du, erabilitako jatorrizko materialak ez ezik, operadoreek Erresuma Batuan edo EBn burututako prozesamendua ere kontabiliza dezaketela).
- Aldeek adostu dutenari jarraiki, akordioaren esparruan, **aduana-prozedurak sinplifikatu egingo dira**; adibidez, besteen programak aitortuko dira konfiantzazko merkataritza-operadoreentzat (baimendutako merkataritza-operadoreak).

Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuta Erresuma Batuak Aduana-batasuna abandonatzea erabaki duela, kontrolak aplikatuko zaizkie merkaturatutako salgai guztiei. Halaber, aldeek erabaki zuten elkarlanean aritzea aduana-eskubideak lehengoratzeko eta BEZaren eta bestelako zeharkako zerga batzuen iruzurraren aurka borrokatzeko.

- **Akordioak beharrezkoak ez diren merkataritzarako oztupo teknikoak saihestuko ditu;** besteak beste, arrisku baxuko produktuentzat, araudia betetzen denaren norberaren adierazpena emango da eta erraztasunak emango dira elkarrekiko intereseko berariazko beste produktu batzuentzat: ibilgailuen industria, ardoa eta produktu organikoak, farmazeutikoak eta kimikoak. Hala ere, EBn sartzen diren Erresuma Batuko produktu guztiek EBren arauketa-estandar zorrotzak bete beharko dituzte, elikagaien segurtasunekoak (adibidez, osasun-arauak eta arau fitosanitarioak) eta produktuen segurtasunekoak barne.
- **Zerbitzuen merkataritzari** dagokionez, EBk eta Erresuma Batuak Munduko Merkataritza Antolakundearen Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorren (GATS) xedapenetatik harago doan irekiera-maila bat adostu dute, nahiz eta horrek islatzen duen Erresuma Batuak ez duela izango EB osoan zerbitzuak hornitzeko askatasuna.
- Neurriak ezarri dira **iraupen laburreko negozio-bidaiak eta prestakuntza altuko langileen aldi baterako adskripzioa** errazteko. Erresuma Batuan zerbitzuak eskaini nahi dituzten EBko zerbitzu-hornitzaileek Erresuma Batuko operadoreek akordioak estalitako arloetan duten tratu berbera jasoko dute, betiere Erresuma Batuko arauak betetzen badituzte.
- Halaber, EBn zerbitzuak hornitzen dituzten Erresuma Batuko hornitzaileek, estatu kide bakoitzean, herrialde anfitrioiaren arauak bete beharko dituzte eta, hemendik aurrera, ez dituzte abantaila hauek izango: jatorrizko herrialdearen printzipioa; **elkarrekiko aitortzea** (adibidez, lanbide-prestakuntzena) edo finantza-zerbitzuetarako **pasaporte-eskubideak** (passporting). Erresuma Batuko zerbitzu-hornitzaileek eta inbertsiogileek ere aukera dute EBn ezartzeko, zerbitzuak merkatu bakarrean eskaintzeko.
- Ohikoa den bezala, **sektore batzuk zerbitzuen akordiotik kanpo daude:** zerbitzu publikoak, interes orokorreko zerbitzuak, garraio-zerbitzu batzuk eta aniztasun kulturala zaintzeko ikus-entzunezko zerbitzuak.

## 2. oinarria – Konektibitatea, arrantza, jasangarritasuna eta partekatutako aukerak

Aurrekoaz gain, EB-Erresuma Batua Akordioak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-lankidetzaz zabala aurreikusten du elkarrekiko interes-arloetan. Lankidetzaz horrek ez ditu inola ere erreproduzitzen EBko kide izatearen onurak, baina baliagarria da bestela Erresuma Batuan irteerarekin apurtuko liratekeen loturak berreraikitzeko, hain zuzen ere, ez dagoelako bestelako nazioarteko babes-irtenbiderik.

- **Garraioa** funtsezko faktorea da EB-Erresuma Batua harremanetako etekin ekonomikoetarako. Urtero, EBren eta Erresuma Batuaren artean, 210 milioi bidaiari eta 230 milioi tona karga garraiatzen dira. EB-Erresuma Batua Akordioak aireko, errepideko eta itsasoko etengabeko konektibitatea bermatuko du, fluxu horiek babestuz. Hala, garrantzitsua da azpimarratzea akordioak xedapenak jasotzen dituela EBko eta Erresuma Batuko operadoreen arteko **lehia** baldintza-berdintasunean garatzen dela **bermatzeko**, zehazki, hauxe ziurtatuz: garraioaren segurtasun-maila altuak, langile eta bidaiarien eskubideak eta ingurumenaren babesa.
- **Abiazioan**, Erresuma Batuko airelineak ez dira EBko airelineatzat hartuko eta EBko trafiko-eskubide guztiak galduko dituzte. EBko eta Erresuma Batuko garraiolariak bidaiarien ea kargaren garraio mugagabea egin ahalko dute EBko puntuen eta Erresuma Batuko puntuen artean (“hirugarren eta laugarren askatasuna”). Aurreranzko garraioa “nward carriage” izendatzen da (“bosgarren askatasuna”) eta hori posible izango da hirugarren herrialde baterako edo hirugarren herrialde batetik egindako garraiorako (adibidez, Paris-Londres-New York), baldin eta estatu kideek alde biko erabaki baten bidez adosten badute Erresuma Batuarekin. Horrekin batera, akordioak aireko trafikoaren kudeaketaren, segurtasunaren eta babesaren arloetako lankidetzak bermatuko du.
- **Errepide bidezko garraioaren** kasuan, EBko eta Erresuma Batuko garraiolariak karga garraiatu ahalko dute beste aldearen lurraldearen edozein puntutik eta edozein puntura, betiere lan-baldintzei eta segurtasunari buruz adostutako estandar altuak betetzen badituzte. Halaber, bi operazio gehigarri egin ahalko dituzte beste aldearen lurraldearen barruan (horietatik, gehienez ere, kabotaje-operazio bat Erresuma Batuko garraiolariarentzat); izan ere, horrela, bueltan kargarik gabe bidaiatzearen arriskua mugatzen da. Horrez gain, akordioak zirkulazio-eskubide guztiak aurreikusten ditu (adibidez, Irlandako garraiolarien eskubidea Erresuma Batua gurutzatzeko, horrela EBko gainerako lekuetara heltzeko).
- Urteetan zehar, EBko eta Erresuma Batuko **energia**-merkatuak sakonki konektatu egin dira, horien artean eraikitako interkonektoreei esker (kable elektrikoak eta gasbideak). Erresuma Batuak ezingo ditu baliatu merkatu bakarraren eskubideak; hala ere, EB-Erresuma Batua Akordioak energia-fluxu etengabeak erraztuko ditu, funtsezkoak direnak bi ekonomien funtzionamendurako, zehazki, interkonektoreen inguruko merkataritza-akordio berriak ezartzerakoan. Era berean, esparru handizale bat ezartzen du energia berriztagarrien eremuko lankidetzarako eta **klima-aldaketa** kudeatzeko (akordioa etetea eragingo lukeen xedapen bat barne, aldeetako batek klimari buruzko Parisko Akordioarekiko konpromisoa urratzen badu). Akordio bereiz batek ere aurreikusten du energia nuklearraren erabilera seguru eta baketsuaren inguruko irismen handiko lankidetzak bat.
- Akordioak akordio berriak ezartzen ditu **EBren eta Erresuma Batuaren uretan partekatutako arrainen 100 populazio baino gehiagoren baterako kudeaketarako**. Akordioaren arabera, EBko arrantza-ontziek Erresuma Batuko uretarako egungo



sarbide-maila mantenduko dute 5,5 urteko trantsizio-epe batean; apurka-apurka eta modu orekatuan, denborarekin, EBren kuotak murriztu egingo dira Erresuma Batuko uretan. Ordutik aurrera, EBk eta Erresuma Batuak urteroko kontsultak egingo dituzte arrantzaren aukerak adosteko, zehazki, arrantzaren eta itsas-baliabideen kudeaketa jasangarria bermatzeko, aldi berean, ur eta baliabide horien menpeko arrantza-erkidegoen jarduerak eta bizitza-bitartekoak zainduz.

- Akordioak **Erresuma Batuaren etengabeko parte-hartzea** aurreikusten du ikerketaren eta berrikuntzaren eta espazioaren arloetan elkarrekiko onurak sortzera zuzendutako **EBren finantzaketa-programetan**. Hauek dira programa horiek: **Europa Horizontea**; Euratom ikerketa- eta prestakuntza-programa; ITER fusio-proben instalazioa; Copernicus eta EBren satelite bidezko (SST) segimendu- eta zaintza-zerbitzuetarako sarbidea.
- Akordioak gizarte-segurantzaren koordinaziorako zenbait neurri jasotzen ditu Erresuma Batuan geratzen diren, bertan lan egiten duten edo aldi baterako bertara joaten diren **EBko herritarren eskubideak babesteko**, baita, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, EBn geratzen diren, bertan lan egiten duten edo aldi baterako bertara joaten diren Erresuma Batuko herritarren eskubideak babesteko ere. Gainera, prestazio ugari estaltzen dira, hauek barne: errenta-pentsioa eta biziraupen-pentsioa; osasun-laguntzako aurre-erretiroko prestazioak (adibidez, Europako osasun-txartela) eta seme/alaba baten jaiotzarekin lotutako amatasun-/aitatasun-prestazioak edo lan-istripuak.

### 3. oinarria – Esparru berria gure herritarren segurtasunerako

Bilakatzen ari diren mugaz gaindiko delinkuentzia eta terrorismoa bezalako mehatxu komunen aurrean EBko eta Erresuma Batuko herritarrak babestea eta horien segurtasuna bermatzea partekatutako lehentasunak dira oraindik ere, Erresuma Batuak EB abandonatzea eta Schengen lankidetzaren kanpoko hirugarren herrialde bat izatea erabaki duen arren. Izan ere, erabaki horrek EBko askatasun-, segurtasun- eta justizia-espaziotik kanpo uzten du. Hortaz, testuinguru horretan, EBk eta Erresuma Batuak erabaki dute **esparru berri bat ezartzea zigor-arloko lankidetzaren polizial eta judizialerako, nazio mailako agintaritzaren polizial eta judizialen arteko lankidetzaren estua eta funtsezko datuak azkar trukatzeko ahalbidetzen dituen**.

- Edozein hirugarren herrialderekin ezarritako erabateko lankidetzaren polizial eta judizial estua bermatzeko, berme irmo eta iraunkorrak ezarri behar dira **giza eskubideak eta pertsonen funtsezko askatasunak babeste aldera**. Horrenbestez, akordioak EB, bertako estatu kideak eta Erresuma Batua konprometitzen ditu Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean ezarritakoak bezalako funtsezko eskubideak babestera eta horiei nazio mailako efektua ematera. Erresuma Batuak hori ez betetzekotan, EBk arlo judizial eta polizialeko lankidetzaren eten ahalko du. Era berean, akordioan, EBren eta Erresuma Batuaren datu-babesaren estandarren maila altuak mantentzeko konpromisoa jasotzen da. Hori alde bakoitzak hartutako alde bakarrek egokitzapen-erabakien bidez egiaztatu egingo da.

- **Datuen truke eta analisi azkar eta eraginkorrak** gero eta funtsezkoagoak dira nazioarteko delitu larrien, terrorismoaren eta ziberdelituen aurkako borrokaren eremuko azken belaunaldiko arauen aplikazio betearazlerako. Hala eta guztiz ere, hemendik aurrera, Erresuma Batuak ez du EBren askatasun-, segurtasun- eta justizia-espazioa babesten duten bereziki babestutako datuen baseetarako denbora errealeko sarbide zuzenik izango; izan ere, aukera hori soilik izango dute estatu kideek eta dagozkien betebeharrak guztiak onartzen dituzten eta EBrekin lotura oso estua duten herrialdeek. Aitzitik, EB-Erresuma Batua Akordioak akordio handizaleak jasotzen ditu, modu egoki eta eraginkor batean, honen inguruko datuak emateko elkarri: aireko bidaiarien datuak (bidaiarien izenen erregistroak edo PNR); zigor-aurrekarien informazioa eta DNA, hatz-marka eta ibilgailuen inguruko datuak ('Prüm datos').
- EB-Erresuma Batua Akordioak Erresuma Batua eta **Europol eta Eurojusten** arteko lankidetzak eraginkorra ahalbidetuko du, betiere EBren legerian hirugarren herrialdeentzat ezarritako arauen arabera. Horrek lagunduko du gaitasun irmoak bermatzera, mugaz gaindiko delitu larriei aurre egiteko.
- EB-Erresuma Batua Akordioak agintaritzak polizial eta judizialen lankidetzak estua ahalbidetuko du EBren eta Erresuma Batua artean, adibidez, **delitugileen entrega azkarra** babestuz, estradizio-prozedura luzeak saihestuz, sinplifikatutako prozesu, epe zorrotz, berme irmo, eskubide prozesal eta kontrol judizialari esker. Lankidetzak-maila honek ez dauka aurrekaririk Schengen espazioan ez dagoen hirugarren herrialde batentzat. Hala ere, akordioaren arabera, Erresuma Batuak edo EBko estatu kideek entrega uka dezakete edo berme gehigarriak eska ditzakete berariazko kasu batzuetan, hau da, bakoitzaren berezko nazionalak dagokienez.
- Azkenik, EB-Erresuma Batua Akordioak lankidetzak aurreikusten du **kapitalak zuritzearen aurkako eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako borrokan**.

#### 4. oinarria – EB-Erresuma Batua gobernantza-esparru berria lankidetzak iraunkor baterako

EB-Erresuma Batua Akordioak gobernantzari buruzko kapitulu bat dauka, akordioa nola kudeatu eta aplikatu egingo den argitzen duena. Malgua izateko eta arlo desberdinetan sor daitezkeen berariazko premietara egokitze sortua izan zen.

- EB-Erresuma Batua Merkataritza- eta Lankidetzak-akordioaren irismena eta konplexutasuna ikusita, EBk nabarmendu zuen beharrezkoa zela **akordio orokorrerako gobernantza-esparru bakarra ezartzea**. Hain zuzen ere, hori da forma bakarra enpresa, kontsumitzaile eta herritarrei segurtasun juridikoa emateko, aldi berean, egitura paralelo anitzen burokrazia gehigarria saihestuz.
- **Elkarketa-kontseilu** batek akordioaren aplikazioa ikuskatuko du. EBko eta Erresuma Batuko ordezkariak osatuko dute Elkarketa-kontseilua eta konfigurazio desberdinetan bilduko da, aztertuko den gaiaren arabera. Foro horretan, aldeak sor daitezkeen gaien inguruan eztabaidatu ahalko dute eta ahalmena izango dute





elkarrekiko baimenarekin erabaki lotesleak hartzeko. Bere lanerako, kontseiluak batzorde espezializatuen eta lantalde desberdinen laguntza izango du.

- **EBren eta Erresuma Batuaren arteko desakordio bat konpontzeko** aukerarik ez aurkitzekotan, arbitraje-auzitegi independente bat ezarri ahalko da, gai hori epai lotesle baten bidez ebazteko. Eztabaidak konpontzeko mekanismo horizontal horrek akordioaren arlo gehienak hartzen ditu barne, baldintza-berdintasuna, lehia eta arrantza barne.
- Horrekin batera, **babes-mekanismo eta aplikazio betearazleko mekanismo sinesgarriak eta irmoak** ezarri dira, merkatuetarako sarbide-konpromisoak bertan behera uzteko aukera barne, esaterako, ukitutako sektorean muga-zergak eta/edo kuotak berriz ezarriz. Gainera, bi aldeek hartu ahalko dituzte errepresalia gurutzatuak beste aldeak arbitraje-auzitegi independente baten epai bat betetzen ez duenean. Adibidez, alde batek berariazko sektore ekonomiko bati eragiten dion arau-hauste bat egitekotan, beste aldeak errepresaliak hartu ahalko ditu neurriak ezarriz beste sektore ekonomiko batzuetan. Azkenik, akordioaren “funtsezko elementutzat” ezarritako (klima-aldaketaren aurkako borroka, balio demokratikoen errespetua eta funtsezko eskubideak edo ugaritzerik eza) betebeharren funtsezko ez-betetze orok EB-Erresuma Batua akordio osoa etetea edo erabat edo partzialki iraungitzea eragin dezake.

2020-12-25